

ZUMAIAKO UDALA

GIPUZKOAKO PROBINTZIA

2006KO MARTXOAREN HOGEITA HAMARREAN UDAL PLENOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIKO AKTA.

Zumaiako hirian, bi mila eta seiko martxoaren hogeita hamarrean, arratsaldeko zortzietan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan (Foronda Kultur Etxean), Udal Plenoa eratu da, ohiko batzaraldia egiteko asmoz, aurrez ezarritako eguneko aztergaiari jarraituz. Garaiz eta behar bezala deituta, korporazioko kide hauek bertaratu dira:

LEHENDAKARITZA.-

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea.

ZINEGOTZIAK.-

Asier ESNAL ALBIZU jauna.
Manuel ZUBIA ARTABE jauna.
Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea.
Mikel OLAIZOLA ELOSUA jauna.
Andoni ETXANIZ OSA jauna.
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA jauna.
Mikel GARATE GOLMAIO jauna.
Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA jauna.
Abel YEREGUI SASIAIN jauna.
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ jauna.
Paloma HEREDERO NEGREDO andrea.
Cristina FORCADA UNANUE andrea.

IDAZKARIA.-

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

1.- AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA: 2005.12.29 ETA 2006.02.09.

Alkate-Lehendakariak bilera eratutzat eman ondoren, onarpenerako aurkeztutako aktei buruz, korporazioko kideren batek, zuzenketarik egin nahi duen galdetu du.

Iñaki Agirrezabalaga Alkorta EA-ko zinegotzi jaunak zera dio, 2005-12-29ko aktaren gaztelerazko alean 15. orrialdean Odieta-San Jose birurbanizatzeko planaren barruan, berak egiten dituen adierazpenei honoko hau gehitzea eskatzen du: plazaren egokitzapenaren zama etxebizitzetara atxikitzen zaiela.

Akta berdinean 16 orrialdean bere hitzaldiarekin jarraituaz Basustako gunean lurrak erosteari buruz ari denean gehitu nahi luke paradoxikoa dela hirigintz aprobetxamendurik ez duten lur sailei nola aurrez aprobetxamendu bat esleitzen zaien.

17. Orrialdean EA eta EAJ-ren iritzi trukaketaren inguruabarrean EA-ak galdetzen duenean Udala zergatik ez den Karmelo Unanue edo beste hirigintz gunea batean sartu, zera eranstea eskatzen du, Odieta San Joseko gunea ere ekimen pribatua sartzeko moduan egokitu zitekeela.

IZUSTARRI Taldeko Joseba Josu Aspiazu Azkarraga zinegotzi jaunak zera dio 2005-12-29ko gaztelerazko aleko 19. Orrialdean IZUSTARRIK bi emendakin aurkeztu zituela diola eta ez dela zuzena. IZUSTARRIK osotasunezko emendakin bat aurkeztu zuela eta bi emendakin partzial.

Andoni Etxaniz Osa IZUSTARRI-ko zinegotzi jaunak gai ordenatik aurrekontuak erretiratzeari buruz Eskari Galderen atalean sortu zen eztabaida aktan partzialki jaso dela salatzen du. EA-k tonuz kanpo esandakoak jasotzen diren moduan ez dira jasotzen EAJ-ren tonuz kanpokoak adibidez *spich, etbr...*

EA-ko zinegotzia den Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jaunak Plenoak grabatuak izan daitezen proposatzen du.

Alkatetzak erantzuten du ez dela hori erabakitzeke unea.

Akta berdinari buruz PSOE-k gaztelerazko 19. Orrialdeko beraien hitzaldian informazio pribilegiaturik ez daukatela dionean, honokoa gehitzea eskatzen du: beraien botoaren zentzua ez dutela adieraziko, aurrekontuak ez direla eztabaidagai ulertzen duten neurrian.

Zuzenketa edo emendakin gehiagorik aurkezten ez denez, bozketa eginda, batzordekideek aho batez onartu dute 2005-12-29ko akta, azalduko aipamenak kontuan izanik, eta 2.006-02-09-ko akta bere horretan.

2.- UDAL ANTOLAKETARI BURUZKO ALKATETZAREN AZKEN EBAZPENEN BERRI EMAN (17, 18, ETA 19. ZENBAKIDUNAK).

Alkate andereak luzaturiko ebazpenen berri ematen du.

2006ko otsailaren 15eko datuz luzaturiko 017/06; 018/06 eta 019/06 zenbakidun Dekretu bidez, Zumaiako Udaleko Alkateak honako erabakiak hartu ditu:

Alkate ordean kargugabetze eta izendapenak.

1. Alkateordearen kargugabetzea, eskainitako zerbitzuak eskertuaz:

—Bigarren Alkateordea Iñaki Agirrezabalaga Alkorta, Udal honetan ordezkaritza duen E.A. talde politikoko zinegotzia.

2.EA talde politikoaren zinegotziaren ordezkartzan Alkateordea izendatzea eta hurrenkera berria ezartzea izendapenetan:

—Lehenengoa: Asier Esnal Albizu jauna, Udal honetan ordezkartza duen E.A.J. talde politikoko zinegotzia.

—Bigarrenkoa: Manuel Zubia Artabe jauna Udal honetan ordezkartza duen E.A.J. talde politikoko zinegotzia.

—Hirugarrenkoa: Lide Amilibia Bergaretxe. anderea, Udal honetan ordezkartza duen E.A.J. talde politikoko zinegotzia.

—Laugarrenkoa: Mikel Olaizola Elosua jauna, Udal honetan ordezkartza duen E.A.J. talde politikoko zinegotzia.

Gobernu Batzordeko kideen kargugabetze eta izendapenak.

1.Gobernu Batzordeko kidea kargugabetzea, eskainitako zerbitzuak eskertuaz,

—Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jauna, Udal honetan ordezkartza duen E.A. talde politikoko kidea.

2.Kargugabetutako zinegotziaren ordezkartza Gobernu Batzordeko kide izendatu:

—Mikel Olaizola Elosua jauna, Udal honetan ordezkartza duen EAJ alderdi politikoko zinegotzia.

Kultura, festak, turismo merkataritza eta kirolak Batzorde berriemaileen Lehendakartzen eskuordetzak baliogabetzea. Eskuordetza berriak.

1.-Batzorde Berriemaileen Lehendakartzen eskuordetzak baliogabetzea, ondoren zerrendatzen diren zinegotzien aldekoak, eskainitako zerbitzuak eskertuaz:

—Iñaki Agirrezabalaga Alkorta Jauna, E.A. (Kultura, Festak, Turismo eta Merkataritza).

—Abel Yeregi Sasiain Jauna, EA. (Kirolak).

2.Ondoren zerrendatzen diren zinegotzien alde eskuordetzea, jarraian aipatzen diren Batzorde Berriemaileen Lehendakartzak:

—Lide Amilibia Bergaretxe, anderea, E.A.J. (Kultura, Festak, Turismo eta Merkataritza).

—Asier Esnal Albizu, jauna E.A.J. (Kirolak).

Iñaki Agirrezabalaga Alkorta EA-ko zinegotzi jaunak zera galdetzen du nola gelditzen den Kultura Batzordeko zinegotziaren karguari dagokion liberazioa.

Idazkariak zera erantzuten du Plenoari dagokiola erabakitzea Udalaren zein kargu politikoari dagokion liberazioa. Zentzu honetan udal Plenoak hauteskunde ondoren egin zuen Udal antolaketa Plenoan zera erabaki zuen Merkataritza, Turismo, Festak eta Kulturako Batzorde berri emaileko Lehendakariak, dedikazio partziala izango duela eta UEFALEBAko 13 mailako ordainketa.

Alkate ebazpen bidez izendatzen dira kargu hauek eta aldi berean kargugabetu ere, beraz kargu horretan dagoenak dedikazio partzialerako eskubidea izango du dagokion ordainketekin eta kargugabetzen zaionak eskubide hori galdu egiten du.

Une honetan kargu horretarako izendatu denak badu beste kargu bat eta kargu horregatik liberazio osoa duenez ezin du beste liberazio erdi bat kobratu.

IZUSTARRI Taldeko Joseba Josu zinegotzi jaunak zera gogorarazten du, Hazienda Batzordean aipatu zela liberazioen gaia baina ez zutela erantzunik jaso.

Hazienda Batzordeko Lehendakariak Asier Esnal zinegotzi jaunak zera erantzuten du aipatu zela gai hori Batzordean, eta erantzuna zera izan zela Kultura Lidek hartzen zuela eta Kirola neuk. Eta Kultura hartzen zuen zinegotzia liberatua zegoela, besterik gabe.

IZUSTARRI Taldeko Andoni Etxaniz Osa zinegotzi jaunaren iritzian, Batzorde Berri emaileen Lehendakaritzen izendapena ordezkari zabalago baten isla izan beharko luke. Lehen ardurak bi alderdien artean banatzen ziren eta orain berriz bakarrik hartzen ditu. Une egokia litzateke, aldaketarako.

Alkateak zera erantzuten dio, beraiek bakarrik dakitela zein zaila den bakarrik gobernatzea.

3.- ZUMAIAKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 2. ALDAKETA PUNTUALAREN, 3.2 E.U. ODIETA-SAN JOSE ETA 5. SO-ko (Gurrutxaga-Zuloaga) HIRIGINTZA FITXARI DAGOKIONA, HASERAKO ONARPENA, BIDEZKO BADA.

HIRIGINTZA Batzordeko erizpenaren berri ematen da:

AURREKARIAK

1.- **AURRERAPENA:** Gobernu Batzordearen 2005eko uztailaren 21eko erabakiaren bidez, Zumaiako arau subsidiarioetako ODIETA-SAN JOSE 03 HA-KO BARNE-ERREFORMAKO PLAN BEREZIA osatu aurreko lanak jendaurrean erabaki zen, area horri dagokion hirigintza-fitxak BEPB bat egitea arautzen baitu, area horren antolamendua zehazteko.

Garaiz eta behar bezala aurkeztutako iradokizun batek eskatu zuen Zumaiako arau subsidiarioetako ODIETA-SAN JOSE 3.2 HA-KO BARNE-ERREFORMAKO PLAN BEREZIA osatu aurreko lanak ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN 2. ZENBAKIKO ALDAKETA PUNTUALA bihurtzea, ODIETA-SAN JOSE 3.2 exekuzio-unitatearen eta 5. sistema orokorraren (Gurrutxaga-Zuloaga) HIRIGINTZA-FITXARI DAGOKIONEZ.

2.- Udaltzako 2005-11-24an egindako osoko bilkuran, erabaki hauek hartu ziren:

2.1. ZUMAIA LANTZEN S.A. sozietateak aurkeztutako alegazioa onartzea, eta, ondorioz, Zumaiako arau subsidiarioetako ODIETA-SAN JOSE 3.2 HA-KO BARNE-ERREFORMAKO PLAN BEREZIA osatu aurreko lanak ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN 2. ZENBAKIKO ALDAKETA PUNTUALA bihurtzea, ODIETA-SAN JOSE 3.2 exekuzio-unitatearen eta 5. sistema orokorraren (Gurrutxaga-Zuloaga) HIRIGINTZA-FITXARI DAGOKIONEZ.

2.2.- Odieta-San Jose 3.2 exekuzio-unitatearen eta 5 sistema orokorraren (Gurrutxaga-Zuloaga) hirigintza-fitxari dagokionez, Zumaiako arau subsidiarioen 2. zenbakiko aldaketa puntualeko agiria idazteko irizpide eta helburu orokorrak onartzea, udal-teknikariak idatzitako txostenarekin bat etorritz.

Arau-aldaketaren testua idazteko ardura duten udal-zerbitzu teknikoek, onartu diren irizpide eta helburu orokorrei jarraituz, arau-aldaketaren hasierako onarpeneko agiria idatzi dute, eta, orain, udal-teknikariak egindako txostenarekin bat etorritz, agiriari hasierako onarpena ematea dagokio, eta hura jendaurrean erakustea.

ZUMAIAKO UDALA

HIRIGINTZA DEPARTAMENTUA

TXOSTEN TEKNIKOA, 15/06 zk.

PROIEKTUA: ERAIKUNTZA:

PLANGINTZA: ZUMAIAKO PLANEAMENDUKO ARAU

SUBSIDIARIOETAKO 2. ZENBAKIKO ALDAKETA

KOKAPENA: LURZATIA: ODIETA-GURRUTXAGA

AREA: 03 HA- 5. SO

FASEA: HASIERAKO ONARPENERAKO DOKUMENTUA

ERAGILEA: ZUMAIAKO UDALA

TALDE EGILEA: LUCIANO PAGAEGI / JONE CALZACORTA

ONIRITZIAREN DATA:

SARRERA ERREGISTROKO DATA:

TXOSTENAREN DATA: 06-02-28

1.-AURREKARIAK.

Hirigintza-esparrua: -Zumaiako planeamenduko arau subsidiarioak (04-02-17)

-BEPBaren aurrerapena (2005eko uztaila)

-2005eko azaroaren 23an Zumaia Lantzenek (garaiz kanpo)

aurrerapen-agiriari egindako iradokizuna, eta, udaleko zerbitzu teknikoen adierazpenei jarraituz, aurrerapen-agiri horri egindako zuzenketa, hasierako espedientea —BEPBaren aurrerapen-agiri gisa tramitatua— hirigintza-area horretako hirigintza-fitxak araututakoari egokitze; hau da, arau subsidiarioei egindako aldaketa gisa izapidetzeko, lurpeko aparkalekuak egiteko eta aparkaleku horiek besterentzeko aukera jasotzen baita.

2.- IRUZKINAK.

Zumaiako planeamenduko arau subsidiarioetako 2. zenbakiko aldaketa idatzi da, Lurzoruaren Legearren planeamenduko araudiaren (2159/1978 ED) 154.2 eta 154.4 artikuluetan ezarritakoari jarraituz, udaleko hirigintza-arauetako 04.3 artikuluan jasotzen den moduan. Hauek dira 2. zenbakiko aldaketaren irizpideak eta helburuak:

Hirigintza-arearen antolamendua planteatzeko, hamar irizpide hauek balioetsi dira:

1. Europar Batasuneko Hiri Inguruneko Liburuko oinarritzko printzipioetako honi jarraitzea: “herrien eta hirien nortasuna babestea eta balioestea, lekuen eta horien historiaren arteko harreman esanguratsuak ezarriz”.
2. Zumaiako arau subsidiarioetan jasotako irizpideak eta helburuak aintzat hartzea, eta, ondorioz, aldaketa-irizpideak jasotzea, ingurumen-balioak babestea, eta Odietaren izaerari eustea, errebal historikoa den aldetik.
3. Eraikuntza berrien ezaugarri estetikoak eta tipologikoak zehaztea, irizpide tradizionaleri jarraituz Odietako erreballean eta Gurrutxaga plazan.
4. Garapen organikoan oinarritutakoak diren bost elementutan oinarritutako egitura osatzea, espazioan eta denboran. Hauek dira elementuok:
 - a.- Odieta, Eusebio Gurrutxaga eta Zuloaga plazak indartzea, Zumaiako bizitzaren erdigune diren aldetik.
 - b.- Odieta frontoia kanpo zabaleko espazio moduan berreskuratzea, Odieta eta Gurrutxaga-Zuloaga plazen arteko eremua antola dezan.
 - c.- Torreberri ondoko Odieta errebalaren gune historikoa berriz zehaztea eta indartzea, eta Odieta-Gurrutxaga-Zuloaga plazen elkarketaren ondorioz sortuko diren plazekin, espazio publikoekin eta ekipamenduekin batera antolatzea.
 - d.- Adierazitako plazen azpian aparkalekuak egiteko aukera ematea, oinezkoentzako eremuak eta hiri-hobekuntza iraungarriko guneak sortzeko, Zumaiako planeamenduaren arau subsidiarioetan (antolamendu-memoria) azaldutako planteamenduak gauzatzeko.
 - e.- “Fraide” frontoia eta “Erkibe etxea” erabilera eta jabari publikoko ekipamendu gisa berreskuratzea, jada daudenei —Jubilatuen etxea eta Torreberri (ludoteka)— gehitzeko.
5. Antolamendua **arkitekturaren** ikuspegitik egitea, aitzat hartuta arkitektura dela hiri-egiturak eta -fatxadak, lerrokadurak, sestrak eta bolumenak sortzen dituen.
6. Egungo arkitektura elementuei erreparatzea, egungo Gurrutxaga plaza ulertzeko eta posible egiteko adierazle den aldetik: eraikitako ondarea babesteko mailak ezartzea.

Horiei erreparatuta, agerikoa da bizitegi-premiak egokitu egin behar direla errebalen paisaiaren barneko tipologiei, bolumenei, ikuspegiei, sekuentziei eta planoei.
7. Oinezkoentzako eremu publikoak berriz urbanizatzea, berriz zehaztea, mugatzea eta edukiz betetzea, adierazitako plazen elkarketak espazio bakarra osa dezaten.
8. Oinezkoen eremu horiek zehazteko, berrantolatu egingo dira bideak. Erribera kaleari jarraituz Zuloaga plaza inguratzen eta azken hori E. Gurrutxaga plazatik bereizten duen bidea kaiko bidera eramango da, Amaia plazarako eta Arrangoletarako sarbidera, alegia.

9. Mugatutako hirigintza-esparrua Zumaiako Udal Ekintzako 2005-2015 Programari eta 2005eko azaroko Zumaiako Mugikortasun Planari egokitzea eta hura garatzea.

10. Aldaketa Barne Erreformako Plan Berezi baten bidez egitea, garapeneko antolamendua espediente berean jasotzeko.

Horren harian, arau subsidiarioen 2. zenbakiko aldaketak 3.2. exekuzio-unitatearen hirigintza-fitxa garatzen du, eta konparaketa-taula hau ezartzen du, parametro orokorreki dagokienez.

3.2. Ex. Unit. (Odieta)	ZUMAIAKO ZUMAIAKO	Arau Subsidiarioen aldaketa
Etxebizitza-kopurua	24 + 9	24
Solairu-okupazioa (m ²)	805	1000
Sabai eraikigarria (m ²)	3965	3750
Batez besteko aprobetxam. (m ² /m ²)	5,23	0,92
Profila	BS+3+TS	BS+3++TS
Hegalaren alt. (m)	12,50	14-16 (*)
A.1. Exek. Unit. (Gurrutxaga-Zuloaga)		
Lurpeko aparkaleku-kopurua	0	120 (**)

(*) 1/50 eskalan aztertutako etxebizitza-proiektutik jaso dira datuak.

(**) Gutxienez 120 aparkaleku sotoko lehen solairuan, eta aukerakoa izango da gainerako solairuetan.

Ildo horretatik, A.1. Exekuzio Unitatea (Zuloaga-Gurrutxaga), sestra gainean, Erabilera eta Jabetza Publikoko Espazio Libreen Sistema Orokorra izaten jarraituko du.

Sestrapean, berriz, garajeen eraikuntza erabilera eta jabetza publikoak izango da, baina, Zumaiako Udalak egokitzen jotzen badu, jabetza eta erabilera publikoa ere baimenduko da.

Bestalde, arau-aldaketak fitxen bidez zehazten ditu berrantolatzen den esparruan egun dauden eraikinak eta gerorako programatzen direnak, eta horrek erraztu egiten du erabilitako metodoaren ulerpen sistematikoa.

3.-ONDORIOAK.

Aldeko txostena.

Alabaina, udal interesentzat egokiena irizten duena erabakiko du Udalbatzak.

ZUMAIAN, 2006KO OTSAILAREN 28AN. -LUCIANO PAGAEGI BILBAO, ARKITEKTOA.

EB-BERDEAK zinegotziaren botoaren azalpenaren ondorioz, zenbait iritzi trukatu dira.

Ondoren, bozketa egin da:

Eskubidezko zinegotziak: 13

Bertaratuak: 13

Aldeko botoak: 7 (PNV, 5; PSOE, 2)

Aurkako botoak: 1 EB-Berdeak.

Abstentzioak: 5 (IZUSTARRI, 3; EA, 2).

Udalbatzako kideen legezko gehiengo absolutuaren quoruma betez, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen, apirilaren bikoaren, 47.3 i) artikuluan ezarritakoari jarraituz, hau

ERABAKI DA

1.- Zumaiako arau subsidiarioen 2. zenbakiko aldaketa puntualari HASIERAKO ONARPENA ematea, Odieta-San Jose 3.2 exekuzio-unitatearen eta 5. sistema orokorraren (Gurrutxaga-Zuloaga) hirigintza-fitxari dagokionez, udal-teknikariak idatzitako txostenak adierazitakoaren arabera (akordioaren azalpenezko zatian idatzita jasota dago).

2.-HILABETEZ jendaurrean jartzea, eta probintziako aldizkari ofizialean eta gehien saltzen den egunkarietako batean iragartzea. Tarte horretan, espedientea aztertu nahi duen edonoren esku egongo da, eta alegazioak egiteko aukera izango da.

4.- AGENDA –21-: ZUMAIAKO IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO EKINTZA PLANA.

Alkate andereak Agenda 21-eko foroetan partaide direnei ezaguna egingo zaiela dio. Agiri honi formaltasuna emateko Plenoak onartu behar du.

Agenda 21-aren bultzatzaile eta garante da Udala.

Zumaiako iraunkortasunaren aldeko ekintza planak zazpi atal ditu:

1.- Ingurumena kaltetu gabe, Tokiko enplegua sustatzeko garapen ekonomikoa bultzatzea.

2.- Biztanleariaren ongizatea eta bizi kalitatearen hobekuntza solidarioa sustatuko duen programa.

3.- Hiri ingurunearen eta ingurumen zerbitzuen hobekuntza.

- 4.- Herriko mugikortasun beharrak iraunkortasun irizpideen ase.
- 5.- Herritarrekiko komunikazioa eta herritarren sentikortze eta parte-hartzea hobetu.
- 6.- Bioaniztasuna eta paisaia babestu eta udalerriko gune eta elementu esanguratsuak ezagutarazi.
- 7.- Iraunkortasun irizpideak txertatu udal kudeaketan.

IZUSTARRI Taldeko bozemaileak, Andoni Etxaniz Osa zinegotziak, Agenda 21-eko foroetan aktiboki parte hartu duela dio eta foro hauetan ideia asko sortu zirela. Ekintza Plan honek ideia guzti hauek jasotze ez dituen neurrian ezin daiteke esan Udalaren Plana denik baizik Gobernuak aurkezten duena. Ez du beharrezko pluralitatea jasotzen. Plana nola prestatu den ez zaigu ongi iruditzen.

Alkate andereak erantzuten dio Udal gobernuak ez duela erabaki zenbait ideien egokitasuna edo ezegokitasuna ekintza planean sartzeari buruz. Herri partaidetzak ez du esan nahi ekarpen guztiak jasoko direnik.

Bestalde Udaleko Batzorde berri emaitzean jorratu den gaia izan da, baina ez zenuten ezer adierazi. Batzordeak luzatzen duen proposamena da Plenoak onar dezan.

PSOE-ren iritzian, foroetan adierazten den guztia zehatz-mehatz ez dago jasotzerik. Foro hauen helburua hiritarren partaidetza bultzatzea da, irekiak dira eta horrek aukera ematen du parte hartu nahi duen guztiak parte har dezan. Beraz jarduteko era hau irekia eta parte hartzailea dela ondorioztatzen behar da.

Alkatetzak dio oso gai garrantzitsuak jorratzen direla foro hauetan. Herritarren parte hartzea sustatu behar da baina denbora asko eskatzen duen lan mamitsua da.

PSOE-k gai garrantzitsu eta sakonak eztabaidatzen diren adibide gisa uraren ziklo integralarena jartzen du. Uraren erabilera txar bat, desegoki bat, egiten ohituak gaude.

Alkatetzak erantzuten du ihesetatik joaten den uraren portzentaia kopurua jeixtearen alde lanean dihar dugu etengabe. Bestalde uraren erabilerari buruzko kontzientziazio kanpainak ere egiten dira.

Orain gutxi Zumaiako Ikastetxeetako arduradun eta ikasleekin ere ekitaldi bat izan genuen beraien ekarpenak jasotzeko asmoz. Zaborrari buruzkoak izan ziren.

Mankomunitatea da zaborrari buruzko arloan lanean ari dena batez ere.

IZUSTARRI-ko Andoni Etxaniz Osa zinegotziak zera galdetzen du Ekintza Planeko L3 atalean P.3.3 programan E.3.3.5 ekintza, "Hondakinen kudeaketa materialian aurreikusten diren ekintzak mankomunitatearen bidez gauzatu", zer esan nahi duen.

Alkateak erantzuten dio, industri poligonoetan zaborraren biltzea selektiboari buruz sistema berezi bat jartzekotan dabilzala, eta une honetan zerbitzu horren gehikuntzak suposatuko lukeen gehiagoko kostea zein izango den aztertzen ari direla.

IZUSTARRI-ko Joseba Josu Aspiazu Azkarragak aldiz argibideak eskatzen ditu Ekintza Planeko L2 atalean P.2.1 programan E.2.1.6 ekintza, "Etxebizitza hutsen kontaketa egin eta hauek alokairuzko merkatuan jartzeko aukeren analisia egin". Ordenantza fiskalak aztertzerakoan atera izan den gaia delako.

Hazienda Batzordeko Lehendakariak, Asier Esnal Albizu jaunak dio Agenda 21-ean erabiltzen den etxebizitza hutsen ikuspuntua eta Haziendak duena ezberdina dela. Gobernuak etxebizitza hutsak alokairuan jartzeko inzentziboak ematen ditu.

Joseba Josu Aspiazu Azkarraga IZUSTARRI-ko zinegotziak etxebizitza hutsen definizioa berdina izango dela dio.

Alkateak dio, ekintza konkretu hau bileretan atera dena dela eta bere horretan jaso dela, baina orain denoi dagokigula erabakitzea ekintza hori nola gauzatu eta irizpideak finkatzea gauzatu dadin.

EB-BERDEAK taldeko zinegotziak, Cristina Forcada Unanuek dio Agenda 21-eko ekintza planak aurrera eraman eta gauzatzeko borondate politikoa behar dela. Energia berriztagarria ezarri hasteko udal eraikuntzetan. Zergatik ez dira ipintzen Udaletxe berriaren eraikuntzan eguzki plakak ? eraikin berri bat da orain dugu aukera. Galdera hau luzatzen dizuedanean zuen erantzuna energia hori ez dela errentagarria izaten da. Era guztietara EVE-ren txosten baten zain gaude.

Alkateak dio errentagarria ez dena guk geuk sortutako energia saltzea dela. Errentagarriagoa da energia berriztagarriak ura berotzeko erabiltzea, ur beroa behar duten ekipamendu publikoetan. Beraz ez da itxurakeria soiluz egin beharreko zerbait.

Ingurugiro Batzordeko Lehendakariak, Mikel Olaizola Elosua zinegotziak zera dio EVE-ren txostenaren arabera energia berriztagarria erabiltzea egoki litzatekeela Ikastetxeetan, Polikiroldegian eta San Juan Egoitzan. Batzordean adierazi genuen egoitzako txostenaren zain geundela.

Alkateak dio ez dela prozesu erraza , eta denboran luze joko duela, une honetan Plenoari dagokio Ekintza Plana onartzea eta aurrera pausoa ematea.

Bozketa eginik udal batza osatzen duten eta bilerara bertaratu diren eskubidezko hamahiru zinegotziren aho batasunean ERABAKI DA:

Zumaiako Tokiko Agenda 21, iraunkortasunaren aldeko udal prozesuko Zumaiako Iraunkortasunaren aldeko ekintza plana onartzea.

5.- ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN UDAL ARAUDIAREN HASERAKO ONARPENA, BIDEZKO BADA.

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeko Lehendakariak, Lide Amilibia Bergaretxek, Batzordearen azken hiru bileretan jorratu den gaia izan dela dio. Erreglamendu hau Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Udalek gizarte zerbitzu gaietan izenpeturiko hitzarmenaren ondorio da.

Hitzarmena sinatu eta bederatzi hilabeteko epea geneukan Erreglamendua onartzeko.

Aipatu behar da lehen geneukan erreglamenduarekin alderatuz gero ez dagoela ezberdintasun handiegirik.

Bi erreglamenduen arteko aldeak azaltzen saiatuko naiz.

.- Lehen zerbitzua astelehenetik ostiralera eskaintzen zen, orain asteburuetara ere zabaldu daiteke.

.- Onuradunak Zumaian Erroldatua egon behar du. Lehen bezala, baina orain erroldaturik urtebete eraman behar du.

.- Aportazioarenean ez dago aldaketa handiegirik.

.- Onuradunek bere erabilera askerako (" libre disposición") lehen 405 €zituzten eta orain 479,10 €hau da IPREM-aren % 100.

Onuradunaren ikuspegitik zerbitzua hobeagotu egiten da.

Batzordean IZUSTARRI-k aipatu zuen Erreglamendua dagoen bezala idatzia azpikontratazioa egitatez onartzen dela.

Izan ere 21. Artikulua aztertuz badirudi hori esaten duela "Etxeko laguntza zerbitzuaren prezioa . (...) Ez zerbitzua ematen duen pertsonak ez zerbitzua hartuta duen enpresak ez du aurreko paragrafoan adierazitako diruaz gaineko ezer onartuko, ez emaririk ez ordainketa gehigarririk ez bestelakorik. Zerbitzua hartuta duen enpresak zaindu behar du baldintza hori betetzen dela."

Idazketa hau beraz aldatu egiten da eta ondorengo ematen zaio : "Etxeko laguntza zerbitzuaren prezioa . (...) Ez zerbitzua ematen duen pertsonak ez zerbitzua hartuta duen enpresak horrelakorik egongo balitz ez du aurreko paragrafoan adierazitako diruaz gaineko ezer onartuko, ez emaririk ez ordainketa gehigarririk ez bestelakorik. Zerbitzuaren arduradunak zaindu behar du baldintza hori betetzen dela."

Alderdien botoaren adierazpenean, IZUSTARRI-k alde bozkatuko duela dio, azpikontratazioaren aurka daudela nabarmenduz.

Bozketa eginik udal batza osatzen duten eta bilerara bertaratu diren eskubidezko hamahiru zinegotziren aho batasunean ERABAKI DA:

1.- ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN UDAL ARAUDIA haserako izaeraz onartzea.

2.- Gutxienerako 30 egunerako jendareko agerraldi epe bat zabaldu eta interesatueri audientzia eman, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita, erreklamazio eta murtziloak aurkez daitezzen helburuz.

3.- Erreklamazio edo murtzilorik aurkeztuko ez balitz behin betiko onartutzat hartuko da erabaki hau.

6.- ESKARI – GALDERAK.-

Alkate-Lehendakariak korporaziokideren batek eskakizunik edo galderarik egin nahi duen galdetu du.

IZUSTARRI-tik Andoni Etxaniz Osak orain gutxi Udaleko Sarrera erregistroan oposizioko hiru alderdik sinatutako Zumaiako Paola Aldizkariaren inguruko mozioa aurkeztu zutela adierazten du eta harriduraz hartu duela gai ordenan sartu ez izana.

Alkateak erantzuten dio, bere asmoa ez dela mozioaren edukia ez tratatzea, are gehiago uste du eztabaidatzea behartuta dagoela, ariketa bat egitea, horretarako bilera monografiko bat egin beharko litzateke, formalki adieraziz zer proposatzen dezuten.

Nere zalantzak izan ditut mozioa gai ordenan sartu ala ez, baina planteatuta dagoen modua ez nau sartzera behartzen, eta aurrez eztabaidatu ondoren sartuko da.

IZUSTARRI Taldeko bozemaileak salatzen du Arau Subsidiarioen alderdik buruz banatu den txosten teknikoak gaztelera hutsean zegoela.

Alkateak erantzuten dio etengabeko hobekuntza aplikatu beharreko arlo bat gehiago dela.

EA-ko Iñaki Agirrezabalaga zinegotziak, Zumaia Lantzen buruz argitaratu den informazio orriaren kostuari buruz galdetzen du.

Alkateak 6.000 €koa izan dela erantzuten dio.

EA-ko bozemaileak zera esanez jarraitzen du azken finean diru publikoa erabili dela, zumaia guztion dirua, EA-ri publikoki erantzuteko eta diru publikoaren erabilera horren aurrean babesik gabe gaude.

Alkateak dio informazio orri hori kaleratzearen zergatia herritarren eskaeran dagoela. Kaleratu, web orriaren bidez makina bat lagun zuzendu zaidalako zumaia lantzen zer den informazioa eskatuz. Beraz behartua ikusten naiz eskaera horri erantzun bat ematera. Orri horretan ez da gezurrik esaten. Beste gauza bat da oposizioko alderdien gustukoa ez izatea.

Iñaki Agirrezabalaga EA-ko zinegotziaren iritzian Zumaia Lantzenen gestioak orohar % 3,5-a suposatzen duela jasotzea ez da egokia.

Orrian adierazten da Zumaia Lantzenek kontratuak esleitzerakoan Administrazio Publikoen Kontratuen Legea betetzen duela, baita ere Uraren Legea, Kode Zibila edo eta Konstituzioa. Legea betetzen duela baieztatzeak, ez du saihesten orria egintza propagandistiko hutsa izan ez denik.

Alkateak azpimarratzen du kalean saltsa sortu dela, nahasmen handia eta informazioa eman beharra zegoela eta bete behar hori asetu dela.

Alderdien arteko eztabaidan PSOEtik zera adierazten dute zumaiarrak ez direla tentelak eta informazio orriak bere kabuz hitz egiten duela.

IZUSTARRI-tik Zumaia Lantzen S.A-ren abantaila fiskalei buruz galdetzen da.

Hazienda Batzordeburuak erantzuten du BEZ-ik ez duela ordaintzen. Hau da Udalak BEZ-a ezin du berreskuratu aldiz enpresa gisa eraturako elkarte merkantilak bai.

Beste gairik izan gabe, arratsaldeko bederatzia eta hogeita hamar minutu direnean, Alkate andreak batzarraldia amaitutzat eman du, eta nik, idazkaria naizen aldetik, fede eman dut.

ALKATEA

IDAZKARIA